



Assa Ikastola
Batxilergo 1 - Ekonomia
2024-2025 ikasturtea
Autolan

SARRERA ITURRIAK

Autolan enpresak hainbat sarrera iturriak erabiltzen ditu. Esate baterako, salmenta zuzena, bitartekari zerbitzuak eginez. Gure bezeroak herritarrak eta udalak izango dira. **Herritarrak** 18 eta 25 urte bitarteko gazteak izango dira. Gazte hauek zailtasunak dituzte auto bat erosteko, baina mugikortasun beharrei erantzuteko ezinbestekoa dute ibilgailu bat eskuratzea, beraz, kotxeak alokatzeko aukera emango diegu. **Udalari** dagokionez, gure bezeroak izango dira gure laguntzarekin herri edo hiriko auzo lanak handituko direlako, beraz, gure eskaria da haiengan ordainketa bat jasotzea.

Diru laguntzei dagokionez, gure enpresaren helburua haztea da. Horretarako, Eusko Jaurlaritzari hainbat laguntza eskatuko diogu: proiektua ezartzeko laguntzak. Kalkulatu ondoren, honekin, gutxigorabehera 22750 euro lortzen ditugu eta diru horrekin beste enpresei kotxeak erosten ditugu, geroago herritarrei alokatu ahal izateko. Finantzaketa honek proiektuaren hasierako oinarriak indartzen ditu eta negozioaren eskalagarritasuna ahalbidetzen du. Prestazio ekonomiko bat emango digute Ekintzaileei bultzatzeko 2024eko laguntzen deialdia: proiektua ezartzeko laguntzak. Oradainketa moduari dagokionez aldi bakarrean ordainduko da dirulaguntza.

<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2024/apes-2024/web01-tramite/eu/>

Hirugarrenez, Autolanen webgunan erabiltzaileek kotxe bat alokatzeko edo aukeratzeko prozesua errazten du. Aldi berean, plataforma honetan beste marka batzuen publizitatea erakusten da, erabiltzaileek produktu eta zerbitzu osagarriak ezagutu ahal izateko. Publizitate espazioak eskaintzen ditu, hau da, markei aukera ematen zaie beren iragarkiak Autolanen webgunean jartzeko. Horrela publizitate espazioak saltzen ditugu eta honen bidez dirua lortzen dugu.

Bukatzeko, gainerako enpresak bezala, sare sozialetan gure enpresaren zerbitzuak zabalduko ditugu, ahalik eta bezero gehien izateko, beraz, komisioak jaso ditzazkegu beste kotxeen enpresen publizitatea eginez.